**2015-02-09ko EZ-OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2015eko otsailaren 9an, arratsaldeko 06:00ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Ainara Mugika Iruretagoyena .

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra, Noelia Lataburu Ortiz, Tomás Etxeberria Sarasola eta Josu Yurrita Loitegui.

Aipatu behar da Olaia Nieto eta Noelia Lataburu anderek ama berriak izan direla.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

**LEHENENGO GAIA**

**2015. EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRAREN HASIERA ONARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektuaren berri eman da. 2015eko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik.Izan ere Udalak ez dauzka Erakunde Autonomorik edo beste edozein erakunderik edo enpresarik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal

Se da cuenta del Proyecto de Presupuesto General de este Ayuntamiento para el ejercicio económico de 2015. El presupuesto comprende sólamente el del propio Ayuntamiento, al no haber Organismos Autónomos u otras Entidades o empresas municipales. El Proyecto es presentado por la

honetako idazkaritza kontuhartzaileak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua betearazteko udal-araua.

Presidente de la Corporación y está informado por la Secretaría-Intervención. Se adjunta también la Norma de ejecución presupuestaria.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

El Presupuesto está formulado de acuerdo con la legislación en vigor en materia presupuestaria y contable y sobre todo, de acuerdo con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se ha formado sin deficit inicial y se presenta al Pleno de la Corporación, para su aprobación, devolución o modificación.

Gainera, kontuan hartzen dira Aurrekontuen eta Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak eta idazkari- kontu-hartzailearen txostenaren arabera betetzen dituela.

Además, se tiene en cuenta la legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y con informe de la Secretaría-Intervención de que se cumple la misma.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, gaur egindako bileran, aldeko onarpena eman dio.

Así mismo la Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración, en sesión celebrada hoy, ha aprobado la misma.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

Ante ello y dadas las aclaraciones oportunas sobre su contenido y previo debate, la Coporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO:

Lehena.-Onartzea 2015erako gastu ez finantzarioaren muga: 1.942.147,78 euro.

Primero.- Aprobar para 2015 el límite de gasto no financiero: 1.942.147,78 euros.

Bigarrena.- Irurako Udalaren

Segundo.-Aprobar inicialmente

2015 urteko Aurrekontuari hasierako onarpena ematea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

el Presupuesto de 2015 del Ayuntamiento de Irura. Está formado únicamente por el del propio Ayuntamiento y comprende el siguiente resumen por Capítulos:

Sarrerei dagokionez:

| KAPITULUAK | IZENA | EUROAK |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 596.000,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 20.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 241.000,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.032.000,00 |
| 5 | Ondarezko sarrerak | 16.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealak inorenganatzea | 125.000,00 |
| 7 | Kapital transferentziak | 8.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 1.000,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 1.000,00 |
| SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA | | 2.040.000,00 |

Gastuak, bestalde:

| KAPITULUAK | IZENDAPENA | EUROAK |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal-gastuak | 781.400,00 |
| 2 | Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan | 589.000,00 |
| 3 | Finantza-gastuak | 500,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 286.200,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 305.400,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 75.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 2.000,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 500,00 |
| GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA | | 2.040.000,00 |

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

No se describe el Presupuesto General por ser mera repeteción del mismo.

Honela, 2015eko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Así mismo se aprueba la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria del ejercicio económico de 2015.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko.

Segundo.-El expediente se somete a información pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por el plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones.

Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Si no se presentan reclamaciones en dicho periodo, se considerará definitivamente aprobado.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

El presupuesto general, definitivamente aprobado, se publicará por capítulos en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Una copia del Presupuesto definitivamente aprobado, se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa,

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Tercero.- El presupuesto entratará en vigor en el ejercicio correspondiente, después de su publicación en la forma señalada anteriormente.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Además una copia del presupuesto y sus modifiacciones, estará a disposición de la ciudadanía, para que tengan la suficiente información, desde su aprobación hasta el final del ejercicio.

**BIGARREN GAIA**

**2015EKO EKITALDIKO PLANTILLA ETA LAN POSTUEN ZERRENDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2015eko Aurrekontuarekin batera 2015eko Irura Udaleko langileen

Con el Presupuesto de 2015 se presenta la Plantilla y la Relación de

plantilla eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztu da.

Puestos de Trabajo de 2015 de este Ayuntamiento.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko informazio batzordeak, aldeko proposamena egin dio, gaur egindako bileran.

La Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración ha informado favorablemente en la reunión celebrada hoy.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena aztertuta.

Cuenta con informe del Secretario-Interventor.

Hori kusita udalbatzak aho batez hau onartu du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

Lehenengoa.- Behin behineko onarpena ematea.

Primero.- Dar la aprobación provisional al mismo.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Udal Aurrekontuarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, erreklamazioak egin ahal izateko.

Segundo.- Someter el expediente a información pública, junto con el Presupuesto municipal, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al objeto de poder presentarse reclamaciones.

Behin Betiko Onartutzat joko da espedientea, erreklamaziorik ez bada aurkezten argitaratuko epean.

Se dará por aprobado definitivamente el expediente, si no se presentan reclamaciones en el periodo de información pública.

**HIRUGARREN GAIA:**
**AMETSA UDAL TRINKETEKO TABERNAREN ZERBITZU KUDEAKETA KONTRATATZEA.**

Irurako Udalak hiru aldiz esleitu du Udal Trinketeko tabernaren ustiapen emakida. Azkena adostasunez ebatzi da.

Este Ayuntamiento de Irura ha adjudicado tres veces la concesión de la explotación del bar del Trinkete municipal. La última se ha resuelto por mutuo acuerdo.

Hori ikusita Udalak erabaki du zuzenean esleitzea ustiapenaren emakida, baina bakarrik probaldiaren eperako.

Ante ello, ha decidido nuevamente adjudicar directamente, pero solo para el periodo de prueba, la concesión de la explotación.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

A C U E R D O:

Lehena.- Ametsa Udal Trinketeko tabernaren zerbitzu-gestioa zehazten duen kontratua Miren Josebe Marquet Iraizoz y otro C.B.ri. esleitzea, honako baldintzekin:

1º.- Adjudicar a Miren Josebe Marquet Iraizoz y otro C.B. la ejecución de la gestión del bar del Trinkete Municipal Ametsa, de acuerdo con las siguientes condiciones:

a) Hasieran 6 hilabeteko probaldiz izango da, 2015eko otsailaren 6tik hasita.

a) Este contrato tendrá una duración máxima de 6 meses a contar desde el 6 de febrero de 2015.

b) Emakidadunak lehenengo solairua osoa garbitzeaz eta trinketearen garbiketa arruntaz arduratuko dira.

b) Los concesionarios se encargarán de la limpieza de la primera planta y la ordinaria de la cancha del trinkete.

c) Kanon kontzeptu gisa ez da ezer ordainduko.

c) En concepto de canon no se abonará cantidad alguna.

d) Era berean, trinketea erabiltzeagatik ordaintzen diren tasen bilketan % 100ean hartuko dute parte.

d) Así mismo participarán en la recaudación de las tasas por utilización del trinekte en un 100%.

e) Kontratu honetan xedatzen ez den guztiari aplikatuko zaio Ametsa Udal Trinketeko taberna kudeatzeko baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria, Udalbatzak onartua 2014ko urtarrilaren 28ko bilkuran eta kontratu honi eransten zaiona.

e) En lo no dispuesto en el presente contrato, se estará a lo dispuesto en el Pliego de Claúsulas Económico Administrativas Particulares del contrato de gestión del mismo aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de enero de 2014.

Bigarrena.- Alkate-lehendakari andereari baimena ematea, kontratua sinatzeko, udalaren izenean eta ordezkari gisa.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente para la firma del contrato, en nombre y representación del Ayuntamiento.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, jarduneko alkateak 19:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA IDAZKARIA